

Felipe Zubia Olaskoaga

MEDIKUA. ZAINKETA INTENTSIBOETAN ESPEZIALISTA

## Gaixotasun psikiatrikoen tratamenduaz

**G**aixotasun psikiatrikoak gizakia bezain zaharrak dira, eta zenbait lanek diotenez, gure arteko %10ak jasaten ditu. Mende askotan zehar ospe txarra izan dute, eta ia kultura guztietan, baztertzeko eta ezkutatzeko joera izan da. Euskaraz, esaterako, eroak edo zoroak izan dira, eta duela urte gutxi arte psikiatrikoetan itxi eta baztertu izan ditugu.

Lehenik eta behin, saia gaitzen gaixotasun psikiatrikoak ulertzen eta saiitzen. Zaku zabal batean gaixotasun psikosomatikoak izango ditugu. Gaixotasun hauetan, eta bizitzan dauzkagun arazoan aurrean, gorputzeko sintomak edo sintoma somatikoak izango ditugu. Esaterako, estres egoera bat dela eta, sabeleko mina, bizkarreko mina edo lo egiteko arazoak izango ditugu. Ulertzeko denez, hasierako arazoia konpondu artean, ez dira sintomak desagertuko. Geroz eta gehiago ikusten ditugun gaixotasunak dira, lehen mailako arretan kontsulatu %25 osatzeraino.

Gaixotasun psikiatriko nagusiak bi taldetan banatzen dira: neurosia eta psikosia. Neurosian gure errealitatearen pertzepzioa mantentzen dugu, baina behar ez bezalako edo gehiegizko erantzuna ematen dugu. Neurosiaren barruan dauzkagu gehiegizko antsietatea, fobiak, hipokondria...



DANI BLANCO

Psikosian baina, errealitatearen pertzepzioa aldatua dago, bestelako sintomak azalduz. Talde honetan dugu eskizofrenia, gaixoak haluzinazioak dituelarik, jazarpeneko psikosia adibidez. Anorexia ere bai, gorputzaren pertzepzioa aldatzen duena. Eta depresioa ere gisa honetakoa da, gaixoari errealitatea ulertzeko gaitasuna galarazten diona. Psikosiek izen txarra duten arren, haien arrisku nagusia gaixoek beren buruaz beste egitea da, eta ez dute ingurukoentzat arrisku handirik eragiten, kasu oso bakantetan izan ezik.

Gaixotasun psikiatrikoen tratamendurako bide ezberdinak ditugu. Geroz eta gehiago dakigunez, gaitz askoren oinarrian arrazoi biokimikoak daude, zenbait substantziaren gabezia adibidez (depresioan dopamina), eta farmakoen bidez substantzia hauen gabezia konpontzen saia gintezke. Botikez gain, psikoterapia ere eraginkorra da, modu ezberdinetako sesioak landuz, gaixotasun bakoitzari dagokiona. Eta hirugarrenez, terapia okupazionala daukagu. Gaixo psikiatrikoak gizartean egoki baliatzeko ezintasuna du, eta galdutako ahalbideak berreskuratzeko beharra izaten du. Gure esku dago beraz gaixo hauei beren tokia onartu eta ematea, ezkutatu gabe, beharrezko arreta izan dezaten. ■

« Gaixo psikiatrikoak gizartean egoki baliatzeko ezintasuna du. (...) Gure esku dago gaixo hauei beren tokia ematea, ezkutatu gabe, beharrezko arreta izan dezaten »

### TXANDAN

Igor Estankona



San Jose lore beilegi-beilegien gainean ihintza oraindik, berria eman zidatenean: “Amama Juanita bajoaku, zatoz ahal dozunean etxera”. Udaberri aurreratu batek hartu zituen, ia-ia asfalto guztia jan arte, Bilbotik Artearako errepideak. Lasai egin nuen amamaren –eta hilda dagoen aititeren– baserrirako bidea. Ugazandre gabeko lekuak dira orain haiek denak. Ibili nituen gaztainondoaren zainak, erreka-muna, labe inguruak, zeruaren urdina.

## Udaberria

Azkenengoz berarekin egon nintzenegian begiekin hitz egin zidan, berba egitea ere kostatu egiten zitzaion eta. Kontu zaharrak eta berriak kontatu nizkion, denborak zentzurik ez duen ohe ondoan eserita. Poliki-poliki agur esatearen alde ona bizi izan dugu guztiok, eta bake hori daroagu: amamaren esku beroen oroitzapena, ume-azal haren zuritasuna, bizitza zer den ulertu dutenen oroimen falta. Notiziarik ederrena eman nion orain dela hilabete batzuk, eta ahaztu egiten zuen arren, errepikatu egiten nion. Birramama izango da maiatzean, amamarik eta aititerik gabeko aita bihurtuko naizenean. ■